

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ERREGIMENA ETA MEZENASGOAREN ZERGA-PIZGARRIAK APLIKATZEKO ARAUTEGIA

1/2026 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidearen foru araua aplikatzeko arautegiari.

(ALHAO, 15. zk., 26-02-4koa)

Erregelamenduak zazpi kapitulu dauzka, hamahiru artikulua guztira, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. kapituluaren arautzen da nola aplikatuko den irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubide berezia (Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren II. tituluan ezartzen dena), nola egin behar duten entitate horiek memoria ekonomikoa (aurreko Foru Arauaren 5. artikulua 13. apartatua arautzen dena) eta nola egiaztatu behar duten jasotako errentengatik atxikipenik edo konturako sarrerarik ez egiteko eskubidea daukatela.

II. kapituluaren irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen alderdi zehatz batzuk ezartzen dira: interes orokorrak edukitzea, administrazio eta kudeaketako gastuak, eta entitate horien ordezkari izendatutako administraziozaileen ordainsariak.

III. kapituluaren, mezenasgorako zerga pizgarriei dagokienez, konpentsazio sinbolikoari edo erreputazio konpentsazioari loturiko zenbait alderdiri buruzkoa da.

Bestalde, IV. kapituluaren emariei, dohaintzei, ekarpenei eta doako zerbitzugintzei buruzko informazioa eman beharra ezartzen zaie entitate horiei, eta horiek agiri bidez egiaztatu beharra ere bai.

V. kapituluaren interes orokorreko jardueren gastu kengarriak arautzen dira.

Ondoren, VI. kapituluaren lehentasuneko jardueretako emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintzaren kengarritasuna arautzen da.

Erregelamenduaren azken artikulua VII. kapituluak dira. Bertan aparteko interes publikoko gertakariak sustatzeko programak arautzen dira.

Beste alde batetik, xedapen gehigarri bakarrean araudi garapena ematen zaie abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren zerga araubide berezia Eliza Katolikoari eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuei aplikatzeaz ezartzen denari eta horiek atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharretik salbuesteaz ezartzen denari.

Bestalde, xedapen indargabetzaile bakarrak berariaz indargabetzen du orain arte indarrean egon den irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko Foru Araua aplikatzeko Erregelamendua, urriaren 19ko 60/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Azkenik, azken xedapen biek zehazten dute foru dekretu hau indarrean jartzea eta berau garatzeko gaikuntza.

Foru dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako arautze onaren printzipioekin. Premiaren eta efikaziaren printzipioei dagokienez, arau hau beharrezkoa da Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Araua erregelamendu bidez garatzeko. Proporzionaltasun printzipioarekin bat etorritik, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauketa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaille izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurrean jartzearen bidez.

Ikusirik gaiari buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako arau eraginari buruzko txosten laburtua eta Aholku Batzordeak emandakoa, zeinean lege antolamenduari egokituztat jotzen baita foru dekretua.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ARAUBIDE BEREZIA APLIKATZEKO PROZEDURA, MEMORIA EKONOMIKOA ETA ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK EGITEKO BETEBEHARRETIK SALBUESTEKO ESKUBIDEA EGIAZTATZEA

1. artikulua. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubide berezia aplikatzea aukeratzea.

1. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren (aurrerantzean, eta foru dekretu honen ondorioetarako, Foru Araua) II. tituluan ezarritako zerga araubide berezia aplikatzeko, Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako entitateek araubide hori aukeratu dutela jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, dagokion zentsu aitopenen bidez.

Betebehar bera izango dute herri onurako kooperatibek eta gizarte ekimeneko kooperatibek, baldin eta, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 43. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, aurreko paragrafoan aipatzen den zerga araubide berezia aplikatu nahi badute.

Foru Arauaren 16. artikuluan ezartzen denaren arabera, komunikazio horri honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) Entitatearen eraketa eskrituraren edo aktaren kopia eta estatutuen azken bertsio eguneratuaren kopia.

"Mortis causa" egintzen bidez eraturako fundazioen kasuan, eratze eskrituraren kopia gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 8. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duenaren arabera eskritura horren baldintza berak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da.

b) Azalpen memoria, honako hauek zehaztuta:

- Helburu horiek lortzeko egiten dituen edo egingo dituen jarduera zehatzak.

- Jarduera horiek egiteko dituen edo izango dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.

- Beren jardunaren onurak bereziki jasoko dituzten pertsonak, entitateak edo kolektiboak.

- Jarduera horiek finantzatzeko modua.

- Entitatearen jardueraren garapenak ekonomian eta gizartean izango duen eragina.

c) Behar den erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria Onura publikoko elkarteak izanez gero, aintzatespen horren frogagarria ere aurkeztu beharko da.

d) Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen direlako erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen legezko ordezkariak sinatua.

Foru Arauaren 4. artikuluan a) letraren azken tartekian aipatzen diren federazio eta elkarten kasuan, kirol federazioak barne, haiek osatzen dituzten entitateen legezko ordezkariak duenaren erantzukizunpeko adierazpena ere erantsiko da. Adierazpen horrek egiaztatuko du entitate horiek Foru Arauaren 5. artikuluko baldintza horiek betetzen dituztela, bai eta haien onura publikoaren adierazpena ere. Federazio eta elkarte horietan entitate berriak sartzen badira, haiek Arabako Foru Ogasunari horren berri eman behar diote, eta, horretarako, egoera hori gertatzen den zergaldi berean, dagokion zentsu aitortza aurkeztu beharko dute. Aitortza horrekin batera, gehitzen diren entitateen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, entitate horiek Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, bai eta onura publikoaren adierazpena ere.

Onura publikoko kooperatiba edo gizarte ekimeneko kooperatiba izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena kooperatiba horien zerga araubidearekin bat etorri egin behar da (16/1997 Foru Araua, ekainaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko kooperatiben zerga araubideari buruzkoa).

e) Entitatea zerga araubide berezia aplikatzeko eskatzeko eskubidea galtzen den kasuetako batean ez dagoelako berriazko adierazpena. Kasu horiek Foru Arauaren 17. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan aipatzen dira.

2. Interes orokorreko helburuak lortzeko jarduna zeharka egiten bada, erregelamendu honen 5. artikuluan arautzen den bezala, aurreko apartatuko informazioaz gainera honako hauek ere aurkeztu beharko ditu entitateak:

a) Interes orokorreko helburuak lortzeko erabiliko dituen irabazteko xederik gabeko entitateen identifikazioa.

b) Proiektuen jarraipenerako eta kontrolerako zer lan egin den eta haiek gauzatzeko jarritako funtsak nola erabili diren azaltzen duen memoria, eta lan horiek egiteko entitate eskatzaileak erabili dituen baliabide materialen eta langileen frogagiria.

3. Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den zerga araubide berezia haren aldeko hautapenaren zentsu aitortpena eta artikulua honen aurreko apartatuetan aipatzen diren agiri guztiak aurkeztu ondoren amaitzen den zergaldian aplikatuko da. Gainera, hurrengo zergaldietan ere aplikatuko da, entitateak uko egiten ez dion bitartean.

Araubide horri uko egiten bazaio, ukoak aurkeztu ondoren hasten den zergaldian sortuko ditu ondorioak. Aurkezpena gutxienez zergaldia hasi baino hilabete lehenago egin beharko da.

Zentsu aitortpenaren bidez jakinarazi beharko da araubideari uko egiten zaiola.

4. Zergaldirik ez duten zergei dagokionez, Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den zerga araubide berezia aurreko apartatuaren lehen paragrafoan aipatzen diren zergaldietan gertatzen diren zerga egitatei aplikatuko zaie, eta araubide horri uko egiten bazaio, ukoak aurreko apartatuaren bigarren paragrafoan aipatzen den zergaldiaren hasieratik gertatzen diren zerga egitatei dagokionez sortuko ditu ondorioak.

5. Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den araubide berezia aplikatu ahal izateko, Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dira zergaldi bakoitzean.

2. artikulua. Zerga araubide bereziaren aplikazioa, tokiko tributuen ondorioetarako.

1. Foru Arauaren 18. artikulua 4. apartatuan xedatzen denaren ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko entitateek jakinarazi beharko dute foru dekretu honen 1. artikuluan arautzen den hautapena baliatu nahi dutela edo uko egiten diotela, eta Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den zerga araubidearen baldintzak bete beharko dituzte.

2. Ondasun higiezinaren gaineko zergatik eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergatik salbuetsita egoteari dagokionez, aurreko 1. apartatuan aipatzen den jakinarazpena (araubide berezia hautatu dela edo araubide horri uko egiten zaiola) ondasun higiezina dagoen tokiko udalari bidali beharko zaio.

3. Jarduera ekonomikoen gaineko zergatik salbuetsita egoteari dagokionez, aurreko 1. apartatuan aipatzen den jakinarazpena (araubide berezia hautatu dela edo araubide horri uko egiten zaiola) kudeatzeko eskumena daukan zerga administrazioari, kasuan kasuko udalari edo Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari bidali beharko zaio.

4. Tokiko tributuetan zerga araubide berezia aplikatzeko eskubidea daukaten subjektu pasiboek tributu horien zorrak dagoeneko ordaindu badituzte, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskubidea edukiko dute.

3. artikulua. Memoria ekonomikoa

1. Irabazteko xederik gabeko entitateek Foru Arauaren 5. artikulua 13. apartatuan ezartzen dena betetzeko aurkeztu beharreko memoria ekonomikoa honako informazio hau agertu behar da gutxienez:

a. Zer errenta dauden salbuetsita sozietateen gaineko zergatik eta zer errenta ez. Errenta salbuetsiak direla eta, salbuespena Foru Arauaren 8. eta 9. artikuluetako zer zenbakitan (eta letratan, behar denean) arautzen den zehaztu beharko da.

Errenta salbuetsi zein salbuetsi gabeko bakoitzaren sarrerak eta gastuak zehaztu beharko dira.

Gainera, gastu orokorrak eta arruntak entitateak lortutako errenta salbuetsien eta salbuetsi gabekoen artean banatzeko egin diren kalkuluak eta aplikatu diren irizpideak ere adierazi beharko dira.

b. Entitateak bere estatutuetako helburuak edo bere xedea lortzeko egin duen proiektu edo jarduera bakoitzaren sarrerak, gastuak eta inbertsioak.

Proiektu bakoitzaren gastuak hainbat kategoriatan banatuko dira: langileen gastuak, kanpoko zerbitzuen gastuak, materiala erosteko gastuak, etab.

c. Foru Arauaren 5.2 artikuluan aipatzen diren errentak eta diru sarrerak zehazteko eta kalkulatzeko modua, eta haien xedea edo aplikazioa deskribatzea.

d. Entitateak patronatuko kideei, ordezkariari edo gobernu organoko kideei dirutan zein gauzatan ordaindutako edozein ordainsari, ordainsari horren izaera eta kontzeptua adierazita.

e. Entitateak merkataritza sozietatetan daukan partaidetza ehunekoa, datu hauek zehaztuta: entitatearen identifikazioa, sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

f. Entitateak partaidetza daukan merkataritza sozietateetan ordezkari gisa dauzkan administratzaileek jasotako ordainsariak, itzuli diren zenbatekoak zehaztuta.

g. Entitateak merkataritza entitateetan parte hartzeagatik jasotako edozein motatako errentak, zein diren identifikatuta.

h. Entitateak interes orokorreko jarduerak egiteko sinatutako enpresen arteko lankidetzak hitzarmenak, datu hauek zehaztuta: hitzarmen bakoitzean parte hartuko duen laguntzailea eta hark jasotako kopuruak.

i. Estatutuen arabera entitatea deseginez gero haren ondarea zertarako erabiliko den; entitatea zergaldian desegin bada, ondarea nola erabili den.

j. Entitateak egiten dituen mezenasgoko lehentasuneko jarduerak, eginez gero.

2. Zerga administrazioari ez zaio aurkeztu beharko aurreko apartatuan aipatzen den memoria ekonomikoa, egitea beharrezkoa izan arren, entitateak zergaldian eduki dituen sarrerak ez badira 50.000 eurotik gorakoak, merkataritza sozietateren batean partaidetza eduki ezean.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, zergaldian 10.000 eurotik gorako sarrerak eduki ez dituzten entitateek ez dute edukiko zertan egin memoria ekonomikorik, merkataritza sozietateren batean partaidetza eduki ezean.

3. Kontabilitateko araudiaren arabera urtero memoria egin behar duten entitateek kontabilitateko txostenean artikulua honen 1. apartatuan aipatzen den informazioa sartuta bete ahal izango dute betebeharrak hori.

Halako kasuetan, Foru Arauan xedatzen dena betetzeko soilik, entitate horiek sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko dute memoria ekonomikoa, aurreko apartatuan xedatzen dena aplikatzen zaienean izan ezik.

4. artikulua. Irabazteko xederik gabeko entitateek jasotako errentengatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik ez edukitzeko frogatu behar dutena.

Irabazteko xederik gabeko entitateek atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharrik ez daukatela egiaztatzeko (Foru Arauaren 14. artikuluan arautzen den salbuespena), Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egindako ziurtagiria beharko da. Ziurtagiri horretan adierazi beharko da entitateak zerga administrazioari jakinarazi diola (foru dekretu honetan ezartzen den bezala) Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den zerga araubide berezia aplikatzea hautatu duela eta ez diola araubide horri uko egin.

Ziurtagiri horretan bere indarraldia ere zehaztuko da: egiten denetik eskatzailearen zergaldia amaitu artekoa izango da. Salbuespena beste zergaldi baterako egiaztatu behar izanez gero, beste ziurtagiri bat aurkeztu beharko da (ziurtagiri bat zergaldiko).

II. KAPITULUA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ARAUBIDEA

5. artikulua. Interes orokorreko xedeak lortzea.

Foru Arauaren 4. artikuluan aipatzen diren entitateek zuzenean jardun behar dute interes orokorreko xedeak lortzeko, Foru Arauaren 5. artikulua 1. apartatuan adierazten den bezala.

Hala ere, interes orokorreko xedeak lortzeko lanak zeharka egin ahal izango dira irabazteko xederik gabeko beste entitate baten edo batzuen bidez (Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan zehazten da zein diren entitate horiek), baldin eta xedeak lortzeko lanak zeharka egiten dituen entitateak proiektuen jarraipenerako eta kontrolerako eta haiek gauzatzeko jarritako funtsak nola erabili diren azaltzeko lanak egiteko behar diren baliabide materialak eta langileak badauzka.

6. artikulua. Administrazio eta kudeaketa gastuak.

Foru Arauaren 5. artikulua 2. eta 3. apartatuaren xedatzen denaren ondorioetarako, administrazio eta kudeaketako gastuak izango dira entitatearen ondareko ondasunak eta eskubideak administratzeak zuzenean eragiten dituenak eta patronatuko kideei, estatutu ordezkariari edo gobernu edota administrazio organoko kideei karguan jarduteak eragiten dizkienak, baldin eta ondo egiaztatzen badira eta itzulketa eskubidea badago indarreko legeriaren arabera.

Administrazio eta kudeaketako gastuen zenbatekoa ezin da izan kopuru hauetako handiena baino gehiago: norberaren funtsez ehuneko 5 edo urteko soberakinaren ehuneko 20, sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren (entitatearen xedeak lortzeko egindakoak ez beste guztiak).

7. artikulua. Irabazteko xederik gabeko entitateen ordezkari izendatutako administratzaileen ordainsariak.

Foru Arauaren 5. artikulua 6. apartatuaren azken paragrafoan aipatzen den salbuespena aplikatzeko, hau da, atxikipenak egin beharra ez edukitzeko, ordaintzaileak egiaztatu beharko du administratzaileen ordainsariak ordezkatzeko duten irabazteko xederik gabeko entitateak jaso dituela.

III. KAPITULUA

MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK

8. artikulua. Konpentsazio sinbolikoa edo erreputazio konpentsazioa.

1. Emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintza izaera ez da galduko, baldin eta konpentsazio sinbolikoa edo erreputazio konpentsazioa ematen bazaio hura egiten duen pertsonari edo entitateari, betiere haren publizitatea edo propaganda helburu nagusitzat ez badu.

Zehazki, konpentsazio sinbolikotzat edo erreputazio konpentsaziotzat hartuko da egindako emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintzaren merkatuko balioa baino askoz ere txikiagoa duena alde handiarekin, baldin eta eragiketaren izaeratik ondoriozta badaiteke konpentsazioa jasotzen duenak egindako jarduketaren helburu nagusia interes orokorreko helburuak betetzea dela.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, inola ere ez da hartuko konpentsazio sinbolikotzat edo erreputazio konpentsaziotzat, baldin eta emariaren, dohaintzaren, ekarpenaren edo doako zerbitzugintzaren eta lortu beharreko konpentsazioaren artean baliokidetasun erlazioa badago.

3. Konpentsazio sinbolikotzat edo erreputazio konpentsaziotzat hartuko dira, besteak beste, honako hauek:

- a) Irabazteko xederik gabeko entitatearen aipamena urteko memorian.
- b) Eskerrak emateko dokumentu pertsonalizatuak.

- c) Oroipen plakak.
- d) Kortesiazo bilerak Zuzendaritza Batzordeko edo Patronatuko kideekin.
- e) Dohaintzan emandakoa emateko ekitaldi publikoak.

IV. KAPITULUA

INFORMAZIOA EMATEKO ETA AGIRI BIDEZ JUSTIFIKATZEKO BETEBEHARRAK

9. artikulua. Jasotako emariei, dohaintzei, ekarpenei eta doako zerbitzugintzari buruzko informazio ereduak.

1. Jasotako emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarriak egiaztatzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu baten bidez onetsiko duen eredu informatiboa aurkeztu behar du entitate onuradunak, eta horrekin batera Foru Arauaren 26. artikuluan 2. apartatuan aipatzen den dokumentazioa ere bai.

Eredu horretan, identifikazio datuez gainera, entitate onuradunak ekarpenen bat egin duten pertsona eta entitateei buruzko datu hauek ere adierazi beharko ditu, gutxienez:

- a) Izen-abizenak edo sozietatearen izena.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Emariaren, dohaintzaren, ekarpenaren edo doako zerbitzugintzaren zenbatekoa.

Ereduan gauzako emari, dohaintza edo ekarpenik agertzen bada, edo doako zerbitzugintzarik, emaria, dohaintza edo doako zerbitzua egin duen pertsonak emandakoaren edo egindakoaren balioespena eman beharko dio entitate onuradunari, Foru Arauaren 21. artikuluan xedatzen denaren arabera.

- d) Emaria edo ekarpena lehentasuneko mezenasgo jardueretarako den ala ez.
- e) Urtean ezeztatu diren dohaintzei buruzko informazioa.

2. Foru Arauaren 26. artikuluan 3. apartatuan ezartzen denaren arabera, entitate onuradunak baimena eskatu ahal izango dio zerga administrazioari artikuluan honetan aipatzen den eredu informatiboan ez sartzeko jasotako emariak, dohaintzak, ekarpenak eta doako zerbitzugintzak, baldin eta ekarleak ez baditu aplikatzen Foru Arauan ezartzen diren zerga pizgarriak eta emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintzei buruz eman beharreko informazioa lortzeak kostu gehigarri handiak sortzen badizkio entitateari. Eskaera hori Sozietateen gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren 45. artikuluan ezartzen den prozeduraren arabera izapidetuko da, artikuluan honetan ezartzen diren zehaztasunekin.

Horretarako, entitateak frogatu beharko du aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla, hau da, salbuetsita dagoela pertsona edo entitate jakin batzuei buruzko

informazioa eman beharretik. Gutxienez, eredu informatiboa aurkezteko epealdia hasi baino hiru hilabete lehenago aurkeztu beharko da eskaera.

Zerga administrazioak eskaera aurkezten denetik edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen denetik hiru hilabete igaro aurretik ebatziko du.

10. artikulua. Egoiliarrek ez diren entitate jakin batzuen alde egindako emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarrien justifikazioa.

1. Entitate onuraduna Foru Arauaren 19. artikuluan 2. apartatuan aipatzen diren entitateetako bat bada, emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarriak egiaztatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute zerga pizgarria aplikatzen duten zergadunek:

a) Foru Arauaren 26. artikuluan 1. apartatuan aipatzen den eredu informatiboan agertu beharreko informazioa biltzen duen dokumentua. Behar den kasuetan, horrekin batera artikulua horretan zehazten den dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

b) Entitate onuradunak Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen duen dokumentazioa.

Aurrekoa gorabehera, zerga pizgarria aplikatzen duten zergadunek ez dute edukiko zertan aurkeztu apartatu honetan ezartzen den dokumentazioa irabazteko xederik gabeko entitateen alde egindako emariei, dohaintzei, ekarpenei eta doako zerbitzugintzei buruz, baldin eta entitate horiek haiei buruzko eredu informatiboa aurkeztu behar badute.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den dokumentazioa emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintza horiek egiten dituztenen zerga hauetako baten autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.

V. KAPITULUA

INTERES OROKORREKO JARDUERAK

11. artikulua. Interes orokorreko jardueretako gastu kengarriak.

1. Foru Arauaren 29. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria, establezimendu iraunkorraren bidez diharduten zergadunen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko, interes orokorreko xedeetarako egindako gastuak kengarriak izango dira.

2. Kopuru horiek kendu ahal izateko, entitate edo pertsona interesdunek honako informazio hau eman beharko diote, idatziz, zerga administrazioari:

a) Interes orokorreko jarduerak egin direla.

b) Gastuaren zenbatekoa.

c) Dena delako jarduerak Foru Arauaren 5. artikulua 1. apartatua biltzen diren interes orokorreko xedeetarako egindako ekarpena azaltzen eta egiaztatzen duen memoria.

Komunikazio hori gastuaren kenkaria aplikatzen den zergaldia amaitu baino lehen egin behar da.

VI. KAPITULUA

LEHENTASUNA DUTEN JARDUERAK

12. artikulua. Lehentasuneko jardueretako emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintzaren kengarritasuna.

1. Foru Arauaren 31. artikulua 2. apartatua a) eta b) letren lehen paragrafoan aipatzen diren kopuruetan edozein ekarpen sartzen da, diruzkoa zein gauzazkoa, doako zerbitzugintza barne, baldin eta lehentasunezko zat jotako jardura edo programa estaltzeko erabiltzen badira.

Ekarpena gauzatan egiten bada edo doako zerbitzugintza bada, ekarpena egiten duenarentzako gastua dohaintzan emandako ondasunaren edo egindako zerbitzugintzaren kontabilitate kostu garbia izango da, eta, hala badagokio, dohaintza bat edo doako prestazio bat egitean, eta ez kostu bidezko eskualdatze bat, uko egiten dion etekin marjina baztertuko da.

2. Doako zerbitzugintza da propaganda eta publizitate gastuak egitea lehentasuneko jardueren berri zabaltzeko zuzenean (lehentasuneko jarduerak Foru Arauaren 31. artikulua 2. apartatua a) letran ezartzen dira), baldin eta haien edukiak jardura horiek sustatzen baditu.

Horrenbestez, honako hauek dira doako zerbitzugintzak, besteak beste:

a) Sustapen edo informazioko material grafikoa edo ikus-entzunezkoa sortzea eta editatzea (liburuxkak, kartelak, gidak, bideoak, ikus-entzunezko euskarriak edo bestelakoak), baldin eta dohainik banatzen badira eta gertakariaren publizitate euskarri moduan erabiltzen badira.

b) Espainiako edo nazioarteko azoketan berariazko pabiloiak instalatzea edo muntatzea, haietan gertakariaren sustapena egiten bada.

c) Gertakariari buruzko publizitate kanpainak egitea, Espainian zein nazioartean, are lehentasuneko jardueraren izena edota logotipoa norberaren zein zergadunaren publizitate euskarrietan txertatzea ere (kasu honetan, ezinbestekoa da tamaina edota iraunaldia ondo ikusteko eta irakurtzeko modukoa izatea).

d) Komunikabideetan doako espazioak lagatzea gertakariaren berri emateko iragarkietarako.

3. Foru Arauaren 31. artikulua 2. apartatua a) letran aipatzen den doako zerbitzugintzak kengarriak izango badira, gastua edo inbertsioa egiten duen entitateak eta entitate

onuradunak, biek batera, honako informazio hau biltzen duen eskaera aurkeztu beharko diote zerga administrazioari:

- a) Lehentasuneko jardueraren berri zabaltzeko proiektuaren deskribapena.
- b) Interes orokorreko xedeak betetzea dela eta lortu nahi diren ondorioak.
- c) Doako zerbitzugintzak gastua edo inbertsioa egiten duen entitateari eragingo dizkion kostuen zenbatespena.

Gastuak edo inbertsioak egin baino lehen aurkeztu beharko zaio eskaera zerga administrazioari, eta Sozietateen gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren 45. artikuluan ezartzen den prozedura orokorraren arabera izapidetuko da, artikulua honetan ezartzen diren zehaztasunekin.

Baldin eta eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez baiesten bada, Sozietateen gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren 45. artikulua 6. apartatua ezartzen den bezala, bertan ez bada berariaz aipatzen zer kalifikazio eskatzen den, ulertuko da publizitate euskarriaren edukia ez dela funtsean lehentasuneko jardueren berri emateko.

VII. KAPITULUA

APARTEKO INTERES PUBLIKOKO GERTAKARIAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

13. artikulua. Aparteko interes publikoko gertakariak sustatzeko programak.

- 1.** Foru Arauaren 32. artikuluan aipatzen den foru dekretuak aparteko interes publikoko gertakariak sustatzeko programetan ezartzen diren zerga pizgarriak aplikatzeko prozedura arautuko du.
- 2.** Zerga administrazioak artikulua honetan aipatzen diren zerga pizgarriak aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatu ahal izango du eta, behar izanez gero, bidezko erregularizazioa egin ahal izango du.
- 3.** Aurreko artikulua 1. apartatua xedatzen dena aparteko interes publikoko gertakariak sustatzeko zuzenean egiten diren propaganda eta publizitateko urte anitzeko gastuei aplikatuko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Eliza Katolikoa eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuk: zerga araubide berezia aplikatzea eta atxikipena edo konturako sarrerak egin beharretik salbuesteko frogatu behar dutena.

- 1.** Foru Arauaren 36. artikulua 1. apartatua aipatzen diren entitateek foru arau horren 7 - 18 bitarteko artikuluetan ezartzen den zerga araubide berezia aplikatu nahi badute, ez dute zertan egin foru dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan arautzen diren jakinarazpenak. Zerga

araubide berezi hori entitateak berak zuzenean aplikatuko du zergak aitortzen edo autolikidatzen direnean; gainerako kasuetan, zerga administrazioak aplikatuko du.

Entitate horiek atxikipenak edo konturako sarrerek egin beharrik ez daukatela egiaztatzeko (salbuespen hori Foru Arauaren 14. artikuluan arautzen da), Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organo eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri hori interesdunak berak eskatu beharko du, mugaegunik gabekoa izango da, eta bertan egiaztatu beharko da entitatea Foru Arauaren 36. artikulua 1. apartatuan aipatzen direnetakoa dela. Eskaeran entitatearen nortasuna eta izaera egiaztatu beharko dira, eta horretarako Justizia Ministerioaren menpe dagoen Erakunde Erlijosoen Erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2. Foru Arauaren 35. artikuluan eta 36. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren entitateei foru dekretu honen 1., 2. eta 4. artikuluetan xedatzen dena aplikatuko zaie, zerga araubide berezia aplikatzea hautatu dela jakinaraztearen ondorioetarako, bai eta atxikipenak eta konturako sarrerek egin beharretik salbuesteko eskubidea egiaztatzeko ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko dira beraren aurka dauden xedapen guztiak, eta batez ere urriaren 19ko 60/2004 Foru Dekretua, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak aplikatzeko araudia onesten duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena. Garapena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan xedatzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.